

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

367

*AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 12koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan 2017an inskribatu diren museo eta bildumen zerrenda argitarata emateko dena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.20 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoa du artxibo, liburutegi eta museoen alorrean, horien titularrak estatua ez denean.

Euskadiko Museoen abenduaren 1eko 7/2006 Legeak, bere 8. artikuluan, Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroa sortu zuen, eta, era berean, Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arau bidez ezarriko direla zioen.

Uztailaren 5ean, ekainaren 21eko 132/2011 Dekretua argitaratu zen, Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu eta museo edo bilduma bat «Euskadiko museoa» edo «Euskadiko bilduma» dela onartzeko aitorpena arautzen duena.

Lege-xedapen horien argitan, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuarekin bat, 132/2011 Dekretuaren 11. artikulua ematen dizkidan eskumenak baliatuz, eta inskripzio-espeditzea eta aitorpen-espeditzea Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen aldeko irizpenarekin bideratu denez,

Ondorioz, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan 2017an inskribatu diren museo eta bildumen zerrenda argitaratzea, eranskinean adierazten denaren arabera.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, denak jakinaren gainean egon daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 12a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2018ko urtarrilaren 23a, asteartea

## ERANSKINA

Erregistro-zk.	Entitatea
RMC-0044	Vitoria-Gasteizko «Elizbarrutiko Arte Museoa»
RMC-0045	Donostiako «UPV-EHUren Hezkuntzaren Museoa»